



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 18a

88 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak bazter utzia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan osasun arloko genero-desberdintasunei buruz eta horrek familia eta lan bizitza bateragarri egitearekin duen loturari buruz. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Laguntza Bidezko Ugalketako Unitate bat sor dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (2. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Lehendakariaren erabakia, 2002ko irailaren 16koa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko arau osagarria onesten da, talde parlamentario bat ebazpen judizial baten bidez desegin edo eteten denerako (3. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan". Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2002ko irailaren 4an egindako

bilkuran mozioa bazter utzi zuen. Mozio hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan osasun arloko genero-desberdintasunei buruz eta horrek familia eta lan bizitza bateragarri egitearekin duen loturari buruz

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 2002ko irailaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan osasun arloko genero-desberdintasunei buruz eta horrek familia eta lan bizitza bateragarri egitearekin duen loturari buruz". Biltzarraren

112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Laguntza Bidezko Ugalketako Unitate bat sor dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan". Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2002ko irailaren 4an egindako

bilkuran mozioa bazter utzi zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Lehendakariaren erabakia, 2002ko irailaren 16koa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko arau osagarria onesten da, talde parlamentario bat ebazpen judizial baten bidez desegin edo eten denerako

Batasuna Parlamentuko Taldearen jarduna eteteko kautelazko neurriak –erakunde terrorista batean sartu izanaren ustezko delitua dela-eta irekitako 35/2002 sumarioaren baitan Instrukzioko 5. Epaitegi Zentralaren abuztuaren 26ko eta irailaren 6ko autoetan ezarria– agerian utzi du gure erregelamenduan ez dela jasotzen ez halako egitatezko baldintzarik ez horren ondorio juridikorik, ez eta talde parlamentario bat ebazpen judizial baten bidez desegiteko baldintzarik ere.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak foru parlamentari izaera galtzeko edo eteteko zioak ezartzen ditu 27 eta 28. artikuluetan, besteak beste ebazpen judizialen ondoriozkoak; 33. artikuluan, berriz, ezartzen du ezen talde parlamentario bat deseginen dela baldin eta talde bat osatzeko gutxieneko parlamentari kopurua galtzen badu, baina ez du jasotzen talde parlamentario bat epai edo ebazpen judizial baten bidez desegin edo eteteko kasua.

Hutsune juridiko hori betetzeko modua Erregelamenduko 40.2 artikulua ezartzen du, hartan ezartzen baita lehendakariak Eledunen Batzarren erabaki loteslea beharko duela baldin eta hutsune juridiko bat betetzearren erabaki osagarri bat hartu behar badu.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrak alde aurretik erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ondoko erabakia hartu dut.

Lehendakariaren erabakia, 2002ko irailaren 16koa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko arau osagarria onesten da, talde parlamentario bat ebazpen judizial baten bidez desegin edo eten denerako

1. artikulua. Epai edo ebazpen judizial irmo baten bidez desegin edo eten den talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentariak Askotariko Taldeko kide izatera pasako dira.

2. artikulua. Atxikita dauden taldea desegin edo eteteko erabaki judiziala dela-eta Askotariko Taldeari atxikitzen zaizkion foru parlamentariak ez dute izaneren Erregelamenduko 35.2 artikuluan ezartzen den dirulaguntza aldakorra jasotzeko eskubiderik.

3. artikulua. Desegin edo etendako taldeak aurkeztutako ekimen parlamentarioak tramitean baldin badaude ebazpen judiziala betetzean, kasuan kasuko ekimena sinatu duen parlamentariak aurkeztutzat joko dira.

4. artikulua. Ebazpen judiziala bete aurretik deitutako bilkurak kasuan kasuko batzordeko edo osoko bilkurako kideekin eginen dira, eta desegin edo etendako taldeko kideak Askotariko Taldeko kidetzat hartuko dira.

Xedapen iragankorra. Arau hau argitaratu aurretik gertatutako kasuei ere aplikatuko zaie honako arau hau.

Azken xedapena. Arau honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

| | |
|---|---|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA |
| Urte bat 39,07 euro | |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 » | |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 » | |